



ENERGIA ELEKTRIKOAREN HORNIKUNTZARAKO ESLEIPENA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko abuztuaren 11ko bilkuran hartutako akordioarekin bat, iragarki honen bidez prozedura ireki baterako deia egiten da ondoko zerbitzua esleitzeko: **“Gorlizko Udalak titularra den puntu desberdinetan energia elektrikoaren hornikuntzarako esleipena”** Kontratua arautze harmonizatupean burutuko da, eta esleipena irizpide bakarra erabiliz —besteak beste, ekonomikoki abantaila gehien dituen eskaintza—. Hona hemen kontratuaren datuak:

1.- Erakunde esleipen-egilea: Gorlizko Udala.

2.- Kontratuaren helburua.

a) Xedearen deskribapena: “Gorlizko Udalak titularra den puntu desberdinetan energia elektrikoaren hornikuntzarako esleipena”

b) Kontratua burutzeko lekua: Gorliz.

c) Burutzeko epea: Urte bat eta beste urte bat luzatzeko aukerarekin.

3.- Izapideak, prozedura eta esleitzeko modua.

a) Izapidetzea: Ohikoa.

b) Prozedura: Irekia.

c) Modua: Arautze harmonizatupeko kontratua, esleipen-irizpide bakarra erabiliz.

4.- Lehiaketaren oinarritzko aurrekontua: Zenbateko garbia: 490.909,10 euro; BEZ, %21, 103.090,90 euro. Zenbateko osoa: 594.000,00 euro.

5.- Bermeak: Administrazio Hitzarkinen Orrietan ezarritakoaren arabera.

6.- Dokumentazioa eta informazioa lortzea:

a) Entitatea: Gorlizko Udala, Herritarren Arretarako Zerbitzuan, 9:00-13:00.

b) Helbidea: Eliz Plaza, z/g.

c) Herria eta posta-kodea: 48630-Gorliz.

d) Telefonoa: 94.677.01.93

e) Telefaxa: 94.677.58.07

7.- Bestelako baldintzak: Espainiarrak ez diren enpresek beren kaudimena egiaztatu beharko dute Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko Legean ezarritakoaren arabera.

8.- Dokumentazio-eskariak jasotzeko epea: 2016ko irailaren 26ko 13:00 arte.



9.- Eskaintzak aurkeztea: 2016ko urriaren 3ko 13:00 arte.

10.- Eskaintzak irekitzea: Gorlizko Udaletxean, lehiatzaile bakoitzari nahiko aurretiaz jakinaraziko zaizkien egun eta orduan.

11.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta gainerako baldintzak eta informazioa: Administrazio Hitzarkinen Orrietan ezarritakoaren arabera.

12.- Iragarkiaren gastuak: Udaletxearen kontura.

13.- Iragarkia Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidalitako eguna: 2016ko abuztuaren 16an.

Gorliz, 2016ko abuztuaren 16 a.